

Josefa Gurrutxaga Oiartzabal
Beasain, Gipuzkoa
(1915-2016)

Aurkibidea

Biografia



Matxinbenta auzoan jaio zen 1915ean; gurasoak ere bertakoak zituen. Auzoko eskolan burutu zituen ikasketak, eta geroago, 12 urterekin Azpeitira joan zen umezain. Senarrarekin batera saskigintzan aritu zen hainbat urtez. Inguruko herrietako azoka eta feria garrantzitsuenetan oso ezagunak ziren beraiek egindako produktuak.

Zintak

BEA-008

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-27
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BEA-009

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-27
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Aita kamineroa zen

- **Erref:** BEA-008/003
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Aita kamineroa zen. Langile bakoitzak bide zati bat izaten zuen ("trozoa") bere ardurapean.

2. 6 urte eskolan, eta gero umezain

- **Erref:** BEA-008/004
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Auzoaren inguruko azalpenak. Eskola kontuak. 6 urterekin hasi eta 12 urtera arte egon zen eskolan; ondoren umezain joan zen Azpeitira.

3. Matxinbenta auzoaren banaketa

- **Erref:** BEA-008/005
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Matxinbenta auzoa. Ibaiaren alderdi batera gelditzen diren etxeak Beasain aldera jotzen dute; beste aldekoak Azpeitira. Ibai-eder.

4. Inguruko ume guztiak biltzen ziren eskolan

- **Erref:** BEA-008/006
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara auzo desberdinetako umeak biltzen ziren. Ezkio-Itsasoko etxe batzuk ere bertara joaten ziren. Azpeitia beti gertuago izan dute Beasain baino. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eskolan.

Transkripzioa

- Eta eskolara esan duzu herrira bertara...
- Bai, herri guztirako eskola bat: Azpeiti partekontzat eta Beasaingontzat, ume danentzat eskola bat. Gero bazan... Ezkio-Itsasokok bazien beste lau etxe eo, lau basarri-edo bazien.
- Eta bertako umeak ere...
- Haik´e bai. Bai, bai, danak toki batea eskolaa.
- Neskak eta mutillak...
- Bai. Baiño gero, piskan-piskan hori utzitzen jun zan, ta gero hasi zian Azpeitira juten. Autobusa etortzen zan umeek eamatea, ta gero Azpeitira. Eske Azpeiti beti gertu euki deu guk Beasain baiño. Gertu, gertu, bide gutxigo.
- Eta neska eta mutilak elkarrekin...?
- Danak alkarrekin eskolan, danak.
- Eta esertzeko orduan, irakasleari aditzeko orduan, elkarrekin jarrita edo banatuta?
- Jolasen´e danak batea igual. Mutillak igual pelotan han frontoian, ta guk beste jolas bat igual, baiño...
- Bai? Gogoratzen duzu ze jolas egiten zenituzten?
- Batzutan danak batea, ta bestetan aparte. Danak hola.

5. "Harrapaketan", "poteketan" edo sokasaltoan jolasten ziren

- **Erref:** BEA-008/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. "Harrapaketan", "poteketan", sokasaltoan... jolastu ohi zuten. Garizuma garaian jolas berezirik ez. Dotrinaren garrantzia.

Transkripzioa

- Ze jolas egiten zenituzten orduan?
- Buo! Guk neskak [jeneralien] egiten gendun este... sokakin., soka-salto ta holako gauzak eiten giñuzen.
- Aponak edo tortolosak edo...?
- Bai, holakok´e bai.
- Eta gero mutillekin batera...
- Mutillek asko eiten zuen pelotan ta hola.
- Harrapatzen edo...?
- Bai, harrapatzen´e bai.
- Baita...
- "Harrapaketan" esaten giñon.
- Harrapaketan. Eta beste jolasik gogoratzen duzu?
- Bai! Askok izango zien. Oain ez dauzkat nik danak gogon, baiño...
- Urte sasoi bakoitzean jolas bat...
- Poteketan´e esaten gendun, poteketan.
- Eta ze jolas zen hori?
- Hori zan: pote bat hartu ta toki baten ipiñi, eta bat pote harekin. Ta beste danak, ta beste gaiñantzeko danak, gorde, izkuta. Eta potea zeukan harek billatu in behar zon hua. Eta billatutakuan, azkar jun ta poteakin han jo in behar zun. Eta, bestela, bestiek harrapatzen bazittun aurretik, ba, berriz´e harek segi in ber. Hola.
- Eta garizuman ze jolas egiten zenituzten orduan?
- Garizuman´e guk aparteko jolasik ez gendun eiten. Elizaa ordun asko. Bueno, hoixe! Dotriña ta... bueno! Dotriñak-eta ikasi giñuzen guk ondo!

6. Etxearen egitura; baserriko bizimodua

- **Erref:** BEA-008/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Etxearen egitura. Beraiena kaleko etxea zen. Baratzea; oiloak. Inguruko baserrietakoak Azpeitira eta batez ere Ordiziara joaten ziren plazara.</p>

7. Saskigintzan aritzen ziren

- **Erref:** BEA-008/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Senarra, saskigilea zen eta biak jarduten zuten saskigintzan. Ordiziara joaten ziren saskiak saltzera; baita Errioxa eta inguruko herrietara ere.

8. Maisu erdalduna eta beraiek hitzik ez erdaraz

- **Erref:** BEA-008/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskola kontuak. Dotrinaren garrantzia. Matxinbentan izan zuten maisua euskalduna zen. Gerora maisu erdalduna izan zuten. Umeek erdaraz hitz bat bera ere ez zekiten.

Transkripzioa

- Eskola kontuak aipatu dituzu lehen, dotriña eta...
- Dotriña?
- Dotriña asko ikasi zenutela, ez?
- Dotriña dana ikasi gendun guk, asko baiño asko. Jesus! Ikaragarri!
- Dotriña nork ematen zuen abadeak edo irakasleak?
- Dotriñaako? Apaiza, herriko apaiza dotriñaako.
- Eta eskola, eskolako irakaslea?
- Eskolaako maixu bat.
- Eta bertakoa zen?
- Ni hasi nitzan sei urtekin eta ordun Matxinbentan zeon maixue euskalduna zan. Azpeitin bizi zan ta Azpeitik etortzen zan e(g)unero Matxinbentaa. [Familikin] bizi zan eta izatez Matxinbentakoa zan hue. Eta bizi zan Azpeitin. Eta ni eskolaa hasi harekin eta oso denbora gutxi barru jubilatatu ein zan. Gero etorri zan kastellano bat Ceutakua edo Afrikako... ez dakit nik nungua, kastellanoa. Harek ein zitun bost urte Matxinbentan.
- Eta aldaketa haundia, ez, somatuko zenuten?
- Ez genekiun hitz bat erderaz guk ordun. Matxinbentan ez zeon ume bat erderaz zekiñik, "Sí"... Ez "sí" ta ez "no". Ez genekiun ze esan nahi zuen. Guk pasa giñuzen orduun! Nei [gauzak] akordatzzen zaitzit, ta oain baleo hue, e, ez dakit ze eingo nioken.
- Azpeitiko edo Matxinbentakoa zen...
- Matxinbentara etorri zan maisu harek.
- Matxinbentakoa zen maisua... nola zuen izena?
- Zenek?
- Hasierako irakaslea, maisua...
- Maixua?
- Azpeitikoa edo Matxinbentakoa zena...
- Matxinbentakoa, haserakua? Ez, hori zan kastellanoa, esan det, gero etorritako...
- Baiña hasieran izan zenuna?
- Hasierakoa zan Matxinbentatik Azpeitira ezkondu ta han bizi zan.
- Eta haren izena gogoan duzu?
- Haren izena zan Inazio Mari. Eta hue etortzen zan Azpeitik Matxinbentaa.

- Eta eskola, orduan, euskeraz ematen zuen?
- Harek dana euskeraz.
- Dana euskeraz?
- Dana euskeraz. Eta beste maisue etorri zanen, hitz bat ez genekiun guk. Ezta hitz bat´e! Guk hartu giñuzen palizak! Ta zergatik, ta erderaz ez genekiulako.

9. Euskaraz hitz egitearren zigorrak

- **Erref:** BEA-008/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola kontuak. Zer ikasten zuten. Maisu erdaldunak zigorrak ipintzen zizkien euskaraz egiten zuten umeei. Euskara-erdara. Euskararekiko gorrotoa.</p>

Transkripzioa

- Ta lehenengo maisuarekin Inazio Mari edo...
- Inazio Mari.
- ... zer ikasten zenuten?
- Harekin zer?
- Zer ikasten zenuten?
- Harekin dana eakusten ziun guri harek.
- Matematika edo...
- Bai, bai, bai, bai. Gero ni hasi-berri xamarra nitzan orduun. Gaztia. Sei urtekin hasten giñan ta... Bai. Baiño... bueno.
- Ondo, ez?
- Ondo.
- Harekin ondo...
- Ondo.
- Eta gero aldaketa handia.
- Gero aldaketa galanta. Erdalduna etorri zan ta hitz bat ez genekiun. Ta harek nahi zon erderaz eitea. Beak ez zekin hitz bat euskeraz... ezerre. Ta baakizu ze iten ziun? Bati ematen zion anillo bat eta harek ein behar zon beste bat euskeraz eiten harrapatzen baldin bazon, anillo hua hari eman. Eta hurrengoak besteai eta hurrengo besteai, hola. Eta geo hurrengo eguna eskola juten giñenen, "A ver, ¿tú a quién le has dado el anillo?". Esango zion beak emandakoari, harek esaten zion holakoi, beste harek beste, danak han pasautako guztik, mordoa, kastigua. Eta mutillak gaizkiña ibiltzen zian, e? Mutillak baldin bazian jo iten zitun. Jo! Hola ipini behatzak, hola eskuk, eta goitik behera behatzak makillakin. Ta gu, neskak, jenealen eiten ziun belauniko jarri ta hola ipini besok zabalduta, liburuk kargauta eskutan, ta kargakin ta... Buo! Holaxe. Ta hori dana euskeraz ein gendulako.
- Eta berakin erderaz...
- Berak ez zekin. Ta bost urte pasatzeako, ba, hitz batzuk, bakizu, ikasi ein zitun. Ta guk´e bai zerbait. Eske hue etorri zanen guk hitz bat ez genekiun erderaz, e? Ezta hitz bat´e! Ta, gero, harek alde eiteako pixkat ikasi in

gendun.

- Eta erderaz jakin gabe nola ikasten zenuten edo...?

- Ba! Entenditzen hasi giñan ta... ahal gendun bezela, palizak hartuta! Hori bada geo, e? Erderaz ez dakiulako palizak. Eske... nik ikusten det, e? Ez due... Erdaldunak gorroto haundie izan due euskerai, e? Haundie, gaiñea! Hemen bertan ´e...

10. Etxean ere erdaraz, maisuak zigorrik ez jartzeko

- **Erref:** BEA-008/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gurasoek erdaraz ulertzen zuten. Amak aitak baino zertxobait gehiago zekien. Etxekoekin euskaraz egiten zuten, baina gerora maisua zigorrak ezartzen hasi zenean, orduan etxean ere euskaraz hitz egiterik ez.

Transkripzioa

- Orduan Matxinbenta, gaiñera, auzo euskalduna izango zen...
- Bai, bai. Baiño oain... oain urtek eta urtek jun die ta oain danak entenditzen due. Danak. Baiño garai hartan...
- Garai hartan...
- Garai hartan...
- ... umeentzat gogorra izango zen, ez? Zuen gurasok bazekiten erdaraz?
- Ba, pixkat bai. Nere ama zan Donostin zerbitzen eondakoa eta aittek´e bai... hitz batzuk bazek... haik bai, haik bazekiten. Baiño nik sei urte nitun ta ni nitzan zaharrena senidetan. Eta ze, ze jakingo gendun, ba? Eskolan, Matxinbentan eskolan gebiltzenak ezer ez erderaz.
- Etxean, orduan, euskaraz egingo zenuten, ez? Gurasoekin euskaraz egingo zenuten...
- A! Bai, etxen beti euskeraz.
- Beti euskeraz...
- Eta [...] egoten giñan. Gure etxea zan bi bizitzakoa, bi bitzitza: goian ta behean. Ez naiz geldirik egon...
- Lasai...
- [...]
- Bi etxebizitzako eta...?
- Ba, aldamenekuai tokatzen bazitzaion anillua... A! Zuk esan...
- Ez, ez, bai, esan...
- Aldamenekuari tokatzen bazitzaion anillua eukitzea, nei, nahiz neure etxen eon, hue zai-zai eoten zan nik nola hitz eiten nun. Ni neure sukalden, e? Amakin o etxekokin hizketan. Eta aitzen baldin bazian, korrika jun ta anillua eman.
- Orduan, eskola kanpo ere... Eskolatik kanpo ere zaintzen...?
- Eske, klaro, anillua zeukanak eman ein nahi zion batenbati. Eman ein behar zon. Hortaiñoxe, e? Hortaiñoxe.
- Orduan, etxean ere azkenean...
- Bai. Isilik egon. Bate hitz... Ez genekiun erderaz ta isilik egon ber. Sinistekook ez dia, e? Baiño...

11. Aitaren lanbidea; euskara-erdara

- **Erref:** BEA-008/016
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Aitaren lanbidea. Erdara ikastea euskara ikastea baino errazagoa.

12. Kamineroen lana; tresnak eta oinetakoak

- **Erref:** BEA-008/017
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Aitaren lanbidearen inguruko azalpenak. Lan gehiena eskuz egiten zen; erabiltzen zituzten tresnak: aitzurra; "pisoia". Oinetakoak.</p>

Transkripzioa

- Aitak bakarrik egiten zuen lan edo...?
- Bakarrik eta beste batzutan koadrilla haundi bat igual danak batea. Nola... nagusiek nola agintzen zien.
- Lehen esan duzu bazterrak garbitu eta...?
- Bai, bai. Gu bizi giñen etxetik zeukan harek han... etxe aurre hartan hasi ta bee jakiñeko bidea zeukan kargu hartzeko. Ta beste kamiñerok´e bai. Orduun, garai hartan, danak hola. Gero hori denborakin galdu ein zan, ta gero beste modu batea: danak pillan ta danak alkarrekin ta hola gero. Gero kamiñok´e hobeto, hobetogo, ta lan gehio ta...
- Matximentatik (Matxinbentatik) kanpo ere lan egin zun...?
- Bai, aittak bai, ibiltzen zan.
- Kamiñero lana egiten... Ta ze tresna erabiltzen zituen orduan?
- Ze lanak?
- Ze tresna erabiltzen zituen edo...?
- A! Tresnak... Ba, tresnak ibiltzen zituen atxurra, atxurak zabal-zabalak ta beste batzuk izaten zittuen rastrillok, harriya zea eiteko ta. Eta gero harriya... kamiñon bota harriya ta zapaldu ein ber zan ta "pisoia" esaten ziyuen, "pisoia". Pisu haundiya zaukan tresna bat.
- Guzti-guztia eskuz egiten zuten, ez?
- Hori danak garai hartan. Oain ez dao holako [beharrik]. Baiño nola jutun dan gauza, e? Garai hartan hala ta oain, oain daon adelanto hau ikusi... bueno! Nola jutun dan.
- Orduan. Lan gogorra izango zen, ez?
- Bai, gogorra. Bueno, zortzi ordu pasatzen zituen kamiñon ta...
- Eta neguan ere...?
- Neguan´e bai.
- Bidea zaindu behar.
- Ta geo neguako ematen zizten sirak eta holako gauzak. Diputaziok ematen zien.
- Oinetakoak...?
- Baita. Botak, botak, azpin danak giltzekin, giltzak sartuta. Tatxuelak o esaten ziu. Botak holakok izaten zien.
- Ordun, gaiñera, neguak gogorak izaten ziren, ez?
- Gogorak, bai. Horik izaten zien, jenealen, kamiñon laneako ta, gogorak izateatik.
- Bai, tatxueladun botak...
- Bai, gogorak.
- Lan guztia, orduan, eskuz egiten zuten eta...?
- Bai, eskuz gauza asko, atxurrakin. Atxurak zian, batzuk estugoak, besteak zabalak eta hola.

13. Dotrina apaizarekin ikasten zuten

- **Erref:** BEA-008/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Apaizarekin ikasten zuten dotrina. Euskarazko dotrina ikasi zuten beraiek. Apaiza nolakoa zen; nongoa; e.a.

14. Jaunartze txikia eta handia

- **Erref:** BEA-008/019
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Jaunartzea zenbat urterekin egiten zuten (jaunartze txikia eta handia).</p>

15. Pazkoako txartela nola lortu

- **Erref:** BEA-008/020
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Pazkoakoa egiteko, "txartela" behar izaten zen. Garizuman apaizarengana txartel bila joan behar izaten ziren eta dotrinaren inguruko galderak ongi erantzun behar izaten zituzten.

16. Garizuma debekuz beteta

- **Erref:** BEA-008/021
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Garizuman, debeku asko egoten ziren. Dantza egitea, erromerietan soinua egotea... galarazita zegoen. Pazkoa egunetan poz handia. Igandetan mezara eta arratsaldetan bezperatara joaten ziren.</p>

17. Urriko arrosarioak

- **Erref:** BEA-008/022
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Urriko arrosarioak. "Eliza bete jende...!". Hilabete guztian 10 arrosario osatu behar ziren elizan. Etxeetan ere arrosarioa errezatzeko ohitura egoten zen.

18. Garizuma garaian fraideak sermoia ematera

- **Erref:** BEA-008/025
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Garizuma garaian fraideak etortzen ziren sermoiak ematera.

19. Eriljioaren indarra; bulak

- **Erref:** BEA-008/026
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Eriljioaren indarra. Bulak: gurutze-bula eta haragi-bula.

20. Asteazken zehar ere egunero mezara

- **Erref:** BEA-008/029
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Igandetan bi meza egoten ziren eta gurasoak txandaka joaten ziren. Igandean ez ezik, aste osoan zehar ere egunero egunero mezara joaten ziren.</p>

21. Bataioen inguruko azalpenak; "Eliz-sartzea"

- **Erref:** BEA-008/030
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Bataioen inguruko azalpenak. "Eliz-sartzea".</p>

22. Elizkizunak; erlijioaren inguruko ohitura zaharrak

- **Erref:** BEA-008/032
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:48:10. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Elizkizunak; ohitura zaharrak. Hilarriak elizan. Hildakoren bat zegoenean etxean ohitura bereziak zaindu behar izaten ziren. Argizaiola; kandelak; ogia.</p>

23. Prozesioak nolakoak izaten ziren

- **Erref:** BEA-008/033
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Prozesioak nolakoak izaten ziren.

24. Kanpai-klaseak

- **Erref:** BEA-008/034
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpai desberdinak. Kanpai luzea jotzen zuten meza hasi baino ordu erdi lehenago. Ilunabarreko kanpaia; ilundu baino lehenago etxera joan behar izaten ziren.</p>

25. Inguruko erromeriak: Mandubi, Kizkitza, Nuarbe, Beizama

- **Erref:** BEA-008/035
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:58:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeria kontuak. Jai arratsaldetan soinu-jolaren bat etortzen zen auzora. "Ttunttuna". Erromeria ezagunak: Mandubi, Kizkitza; Nuarbe; Beizama.</p>

Transkripzioa

- Gaztetan erromeriak eta...
- A! Erromeria bai, juuten giñen, baiño danak atsalden zian. Atsalden zian danak.
- Eta non izaten ziren? Matxinbentan bertan?
- Matxinbentan bertan askotan, jai atsaldeen ta. Soiñu... soiñujotzaillen bat o etortzen zan ta gu dantzan. Nik dantza asko ein nun gaztetan, e? Ni oso dantzarie nitzen, nik dantza asko ein nun. Asko dibertitzen giñen. Dana sueltoon, e? Bai, beste dantzaik ez gendun eiten, baiño guetzako hue ona zan.
- Dantza agarraua edo ze izaten zen...?
- Ez, ez, ez, ez.
- ... pekatua edo...?
- Pekatua bai, apaizak ez ziguen uzten ta. Apaizak hasarratzen zian ta ez zeon libre. Apaizak eta gero etxan gurasook. Danak.
- Orduan, sueltoan egin behar. Eta Matximentako erromerian soiñujole bakarra egoten zen?
- Ez, ez gehio´re bai. Ttunttuna´re bai ta gero kordeona´re bai eta danak.
- Eta ttunttuna zeri esaten diozu?
- Ttunttuna ez dakizu zer dan? Batzuk danboliña esaten [diue] baiño ttunttuna con... este... txilibituakin o "con flauta o no sé".
- Orduan, soiñujole bat baiño gehiago...
- Bai, bai.
- Ttunttuna eta guzti, erromeria haundia izaten zen, orduan?
- Bai. Matxinbentan bakarrik ez, gu auzoota´re juten giñan soiñua zanen igandetan. Igandetan. Auzoko festata´re bai, danetaa: Mandubira ta Kizkitzaa ta...
- Hoiak izaten ziren inguruko festarik handienak?
- Eta Nuarbe´re bai, gertun dao herri hori ta. Ahal gendun toki guztitaa. Beizamaa ta...
- Eta famatuena edo jende gehien biltzen zuena zein izaten zen?
- E? San Marzial?
- Ez, famatuena, erromeriarik...
- Famatu...
- ...inguruko famatuena...?
- Famatu... danak famatu guretzako.
- Handiena?
- Bai, bai, bai, ondo.
- Matximentakoa edo...?
- Baiño atsalden jun ber zan, e? Han ez zan gauen iñor ataatzen; gaueako etxea. Atsalden, dana atsalden.
- Eta Nuarbera edo inguruko...
- Bai, bai, Nuarbea.
- ... auzoetara...
- Auzotaa juuten giñan festak zianen.
- Eta gero etxera bueltatzeko? Erabiltzen zenuten zerbait...?
- Ba, oiñez jun ta oiñez atzea bueltau.
- Eta illuntzen hasitakoan...
- Ba, illuntzeako etxea jun ber.
- ... zerbait erabiltzen zenuten argia emateko bidean?
- Ee... argi beharrik ez zeon.

- Ez?
- Illuntzeako jun in ber. Ta Nuarbea jun ezkeo ta beti dantzan eiten gendun "Bueno, bai, haxe indakon, pieza haxe indakon jungo gea; haxe indakon" ta geo luzetu. Eta geo bidea lehengoa egoten zan eta geo biden korrika. Eta pixkat tardatzen bagendun, ama aten, beira.
- Zain...
- Ez, gurea bakarrik ez, e? Gehio´re bai, danak.
- Orduan, inguruko auzokoekin harremana nolakoa izaten zen, beste gazteekin?
- Ona, ona. Danak ondo, ondo.

26. Dantza lotua egitearren kongregaziotik kanpora

- **Erref:** BEA-008/036
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bizitzarekiko ikuspegia. Dantza lotua egitea debekatuta zegoen. Dantza lotua egiten zuten neskak "Mariaren alabak" kongregaziotik botatzen zituzten. Beste debeku batzuk.

Transkripzioa

- Lehen esan duzu Kizkitza ta... erromeria politak izaten ziren?
- Bai. Nei hue asko gustatzen zat lehengoa. Nei oaingoa baiño gehio gustatzen zat lehengoa.
- Bai, e?
- Bai. Oain adelanto haundia eongo da ta oin best modu batea dare gauzak, baiño...
- Zelakoa zen lehengo [bizimodua]?
- Guk dantzan dana suelton eitten gendun. Hori... ordun goorregi eiten zuen, e? Agarraon eiten bazan, ba, bueno, Marian alabatatik kanpoa esaten zuen. Eramos... gu giñan "Marian alabak". Eta gero kanpoa, dantzan agarraon ein ezkeo. Ni neon Beasaiñen neskame. Ni etorri nitzan hamasein bat urtekin-o ta bi urte ein nitun Beasaiñen. Bueno. Hemengo festatan agarraun in non neure launekin —lagunek baneuzken hemen ta— eta batenbatek kontau zion nik hemen agarraon in nola Matxinbentako apaizei. Hurrena ni Matxinbentaa jun nitzenen, ze bronka in zian!
- Esan duzu "Mariaren alabak"...
- "Mariaren alabak", "Hijas de María". Ez al dakizu zuk hori?
- Kongregazioa. Bai lehen...
- Kongregaziua. Eske komonio haundia eiten genduneen, egun hartatik izaten giñan gu "Hijas de María".
- Eta mutillak?
- Mutillak luistarrak.
- Eta kongregazioan zer egiten zenuten?
- Eta hillen behin jauna hartu ber, reglamentua zan kongregaziokoa hillen behin jauna hartzea.
- Beste zerbait egin behar izaten zenuten?
- Bueno, hainbeste gauza in beharko giñuzen... nik ez dakit ze esan. Buf!

- Bazenuten medalla edo horrelako zer bait?

- Zinta, zinta medallakin.

- Ze koloretakoa edo?

- Zinta zan azul celeste, medallakin.

- Eta zinta horren... zinta aldatzen zen edo...? Ez dakit, horrela, dantza... Lehen esan duzuna, adibidez, dantza agarraua egin ezkerreko zinta zuria ipini edo horrelako kastiguren bat edo ezagutu zenuen?

- Ez, eingo giñuzen apaizak, ba, borratu Marian alabatetik. Ta orduun esango zuen danak: "Hori kanpoa dao, hori kongregaziotik kanpora dao". Ya esta, eso.

- Gogorrak, e? Orduko...

- Baiño herrin beti izaten die holako zeak eta... ez zuten uzten guri gona motxak ibiltzen, luzea ibilli bear gendun. Eta eskoteik'e ez. Eskotea're goraiño itxita, hola, dana. Bueno. Eta ni arteen umea nitzen, baiño neska gazteek bazien orduun herriin, eta ze in die apaizek? Eskote dextente zeukelako o ez dakit nik ze, han neska paren bati o hola komunio... jauna hartzea jun zienen bate ez eman, bate eman gabe pasa. Eskandalok izaten zien, e? Bai. Eta gero ze in zun aittak? Bi alaba hoik hartu ta o(b)ispoana jun. Ta o(b)ispoa ordun, seminarioa ez zeon Donostin, Vitoriin zeon. Vitorin zeon ordun seminarioa. Ta, ordun, o(b)ispoana jun jantzi harekin beakin. Holaxe jun zian, hau hola, hola [...] ta jaunik ez zien eman. [...] eskandalo!

- Eta obispoak zer esaten zuen edo ze...?

- E?

- Orduan, obispoarengana joan eta...?

- Eta... eakustetik jantzi harrekin jun ziala ta apaizak ein ziela jauna eman gabe pasa, ez ziela eman.

- Baiña derrigorrezkoa izaten zen obispoarengana joatea edo hori ya...?

- Geo ez dakit zertan geldituko zian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com